

Gratu Amaierako Lana  
Fisioterapia Gradua

# Fisioterapia tratamenduen eragina endometriosiak sortzen duen minean

Berrikuspen sistematikoa

Egilea: Ismene Rodriguez Blaquí  
Zuzendaria: Iratxe Duñabeitia Usategui

© 2023, Ismene Rodriguez Blaquí

Leioa, 2023ko maiatzaren 2a

## LABURPENA

**Sarrera:** Endometriosisia emakumeetan ematen den gaixotasun ginekologiko kroniko, ohiko, onbera, hanturazkoa eta estrogeno mendekoa da. Gaixotasun honetan funtzionalki aktiboa den ehun endometriala uterotik kanpo eratzten da, horrek hantura kronikoa eragiten du. Sintoma nagusiak min pelbikoa eta antzutasuna dira, bizi kalitatean eragin handia izaten dutenak.

**Helburua:** Endometriosisia diagnostikatuta duten emakumeen minaren tratamendurako zein fisioterapia-tratamendu dauden eta hauek lortutako emaitzak aztertzea ebidentzia zientifikoaren arabera.

**Metodoak:** Bilaketa bibliografiko egin zen “Endometriosis”, “Physical Therapy Modalities” eta “Physical Therapy Specialty” terminoekin osasunarekin lotutako 7 datu-baseetan. Bertan, endometriosisia diagnostikatuta duten mina tratatzeko fisioterapia metodo edo teknikak erabili zuten ausazko entsegu klinikoak bilatu ziren, ingelesez edo gaztelaniaz idatziak. Kalitate metodologikoren balorazioa PEDro eskalaren bidez burutu zen.

**Emaitzak:** Azkenean 7 azterlan aukeratu ziren, hauen kalitate metodologikoa egokia edo ona izanik; bat bakarrik kalitate metodologiko eskasa zuen. Guztira parte-hartzaile 320 aztertu zituzten eta aztertutako fisioterapia metodoak, Thiele masajea, TENS-a (kutaneo eta akupuntura modukoa), nerbio bagoaren elektroestimulazioa eta akupuntura izan ziren. Azterlan guztiek minaren edo minarekin erlazionatutako sintometan hobekuntzak estatistikoki esanguratsuak zehaztu zituzten.

**Ondorioak:** Endometriosiak sortutako min sintomen tratamendurako dauden fisioterapia-tratamenduak ebidentzia zientifikoan oinarrituta Thiele masajea, TENS-a (kutaneo eta akupuntura modukoa), nerbio bagoaren elektroestimulazioa eta akupuntura direla eta minaren gutxipena lortzen dutela ikusi da.

**Gako-hitzak:** endometriosisia, mina, fisioterapia, emakumea.

## LABURDURAK

rASRM: *revised American Society for Reproductive Medicine*

AIEE: Antiinflamatorio Ez Esteroideoak

PMB: *Ingeleraren jatorria: Psychological and Mind-body interventions*; Interbentzio psikologiko eta gogo-gorputz interbentzioa

PRISMA: *Preferred Reporting Items for Systematic Reviews and Meta-Analyses*

PICO: P: Population (populazio); I: Intervention (interbentzioa); C: Comparison (konparazioa); O: Outcome (aldagaia)

IT: Interbentzio Taldea

KT: Kontrol Taldea

PEDro: *Physiotherapy Evidence Database*

RCT: *Ingeleraren jatorria: Randomized Control Trial*; Ausazko entsegu klinikoa

VAS: *Ingeleraren jatorria: Visual Analogue Scale*; Eskala analogiko bisuala

DIE: *Ingeleraren jatorria: Deep infiltrating endometriosis*; Endometriosi sakona

VIF: *Ingeleraren jatorria: Variation in Intensity and Frequency of 1 ms*; 1ms-ko aldaketa intentsitatean eta frekuentzian

RAVANS: *Ingeleraren jatorria: Respiratory-gated Auricular Vagal Afferent Nerve Stimulation*; Arnasketa bidez kontrolatutako nerbio bagoaren zuntz aferenteen estimulazio aurikularra

NVAS: *Ingeleraren jatorria: Nonvagal Auricular Stimulation*; Estimulazioa aurikular ez-bagala

NRS: *Ingeleraren jatorria: Numerical Rating Scale*; Zenbakizko kalifikazio-eskala

DDS: *Ingeleraren jatorria: Deep Dispareunia Scale*; Dispareunia sakonaren eskala

ESD: *Ingeleraren jatorria: Endometriosis Symptom Diary*; Endometriosi sintomen egunkaria

EIS: *Ingeleraren jatorria: Endometriosis Impact Scale*; Endometriosiaren inpaktu eskala

## **AURKIBIDEA**

1. SARRERA .....	1
1.1. ENDOMETRIOASIA ZER DA? .....	1
1.2. PREBALENTZIA .....	2
1.3. PATOGENESIA .....	2
1.4. MINA ENDOMETRIOSIAN.....	3
1.5. SAILKAPENA.....	5
1.6. DIAGNOSTIKOA .....	5
1.7. TRATAMENDUA.....	6
1.7.1. Tratamendu medikoa.....	6
1.7.2. Tratamendu nutrizionala .....	7
1.7.3. Tratamendu psikologikoa.....	8
1.7.4. Tratamendu fisioterapeutakoa.....	8
2. METODOAK.....	10
2.1. BILAKETAREN ESTRATEGIA .....	10
2.2. HAUTAGARRITASUN IRIZPIDEA .....	10
2.3. IKERKETEN AUKERAKETA.....	11
2.4. DATUEN BILKETA .....	11
2.5. KALITATEAREN EBALUAZIOA .....	11
3. EMAITZAK.....	12
3.1. IKERKETEN AUKERAKETA.....	12
3.2. KALITATE METODOLOGIKOAREN BALORAZIOA.....	14
3.3. DISEINUA ETA LAGINA.....	14
3.4. INTERBENTZIOEN EZAUGARRIAK.....	15
3.5. EMAITZA NAGUSIAK .....	16
3.6. ADHERENTZIA ETA AMAIERA TASA .....	17

4. EZTABAIDA.....	25
5. ONDORIOAK .....	28
6. BIBLIOGRAFIA .....	28
7. ERANSKINAK.....	37

## **IRUDIEN AURKIBIDEA**

1. Irudia. Emakume baten pelbiseko anatomiaren eskema, zeharkako ebaketa..... 1
2. Irudia. Bilaketaren eta artikuluen aukeraketaren fluxu diagrama. .... 13


## **TAULEN AURKIBIDEA**

- 1.Taula. PICO strategiaren deskribapena. .... 11
- 2.Taula. PEDro eskala..... 14
3. Taula. Berrikuspen sistematikoan barneratutako ikerketen ezaugarriak..... 18
4. Taula. Prisma 2020 zerrenda (checklist)..... 37
5. Taula.Barneratutako azterlanen ezaugarri orokorrak. .... 42

## 1. SARRERA

### 1.1. ENDOMETRIOASIA ZER DA?

Endometriosisia emakumeetan ematen den gaixotasun ginekologiko kroniko, ohiko, onbera, hanturazkoa eta estrogeno mendekoa da (1). Izan ere, gaixotasun honetan funtzionalki aktiboa den ehun endometriala uterotik kanpo agertzen da, horrek hantura kronikoa eragiten du eta, askotan, fibrosi erreaktiboarekin eta uteroz kanpoko metaplasia muskularrarekin batera agertzen da (2,3). Endometriosisia, orokorrean, obulutegian, Douglas-en poltsan, eta lotailu uterosakreletan garatu egiten da. Batzuetan, Falopioren tronpetan, umetokiaren lepoan, baginan, kolonean, rektumean, apendizet bermiformean, maskurian eta traktuetan ere garatu daiteke (**1. Irudia**) (4).



**1. Irudia.** Emakume baten pelbiseko anatomiaren eskema, zeharkako ebaketa (Gaztelaniaz) (5).

Sintoma nagusiak min pelbikoa eta antzutasuna dira, bizi kalitatean eragin handia izaten dutenak. Dena den, sintomak bi multzotan banatzen dira; ez-espezifikokoak eta organoarekiko espezifikokoak direnak. Alde batetik, ez-espezifikokoak minari egiten diote erreferentzia eta, dismenorrea (hileroko mina) edo min pelbikoa izan daitezke (3,6). Bestalde, organoarekiko espezifikokoak diren sintomak dispareunia (mina harreman sexualetan) sakona, diskezia (sabelusteko zailtasunak) eta disuria (mina pixa egiterakoan) aurkitzen dira (7).



## 1.2. PREBALENTZIA

2004 egindako ikerketa batean endometriosi sintomatikoaren prebalentzia emakume ugalkorren %10a dela estimatu zen mundu osoan zehar. Intzidentziari dagokionez, 2-7/1000 emakume urterokoa da eta beste %11a diagnostikatu gabekoak dira (8). Espainia mailan, 1.700.000 emakume eragiten diela estimatzen da, haien artean %25 kasu larriak izanik (9). Euskal Herri mailan, 2019an 10.749 emakumeek pairatzen zutela gaixotasun hau ondorioztatu zen (10). Hala eta guztiz, endometriosiaren benetako prebalentzia ezezaguna da diagnostiko zehatza egiteko metodo kirurgikoa erabili behar delako. Izan ere, estimazioak oso aldakorrik dira populazio laginen arabera (11).

## 1.3. PATOGENESIA

Endometriosiaren patogenesis ezezaguna da, halaber, gaixotasunaren patogenesis azaltzeko hainbat hipotesi proposatu dira. Hipotesi batzuk besteak baino sinesgarriagoak dira, hala ere, ez da proposatu hipotesi bat endometriosiaren patogenesis azaltzeko gai dena gaixotasunaren modu guztietan (4). Endometriosiaren histopatogenesis azaltzen duten teoriak bi taldeetan banatzen dira; ehun endometrialak uteroko endometrioan jatorria duela proposatzen dutenak (“in-situ” teoriak), eta ehun endometrialak uterotik kanpo dauden ehunetan sortzen dela defendatzen dutenak (transplantazio teoriak) (2).

“In-situ” teoriak bi hipotesiak barneratzen ditu: Hondakin Müllerianoen hipotesia eta Metaplasia zelomikoaren hipotesia (12). Alde batetik, Hondakin enbrioniko Müllerianoen hipotesiak azaltzen du uteroko endometrioan jatorria duten zelulek, hodi Müllerianoetik zehar migrazioa prozesua burutu ondoren, lesio endometriosoak burutzeko gaitasuna dutela estimulu estrogeniko egokiaren aurrean. Hipotesi honek azaldu dezake zergatik endometriosisia normalean aurkezten den cul-de-sac-en (barrunbe peritonealaren zati bat eremu rektobaginala hartzen duenean), lotailu uterosakralean eta lotailu medialetan orokorrean. Hala ere, ez du azaltzen zergatik agertzen den beste lekutan, hala nola, obulutegian, kolon sigmoidean,

apendizean edo diafragman edo pleuran (13). Bestetik, Metaplasia zelomikoaren hipotesia fase enbrionikoan oinarritzen da, non berez ehun peritoneal normala ehun endometrial ektopikoa bihurtzen den (14). Endometriosisia pairatzen duten emakumeetan uteroko endometrioan aldaketa metaplastikoak gertatu omen dira hormonon eraginagatik, hanturatze prozesuagatik edo endogeno biokimiko edo faktore immunogiko bat edo gehiagoren jardueragatik (15).

Transplantazioa teoriak barneratzen dituen hipotesiak endometriosisian aurkitzen den ehun endometrialak ehun eutopikoan jatorria duela defendatzen du. Teoria honetan, endometriosisian aurkitzen den ehuna endometrio eutopikoaren metastasi onbera dela proposatzen da, uterotik gorputzeko beste eremuetara mugitzen dena bide desberdinetatik (1). Transplantazio teoriak Hileroko atzerakoiaren hipotesia eta Inplantazio hipotesiak barneratzen ditu. Bi teorien arabera endometrio eutopikoaren zelulek atzeraka doaz barrunbe peritonealera Falopioren tronpen bitartez; izan ere, prozesu hau berez gertatzen da emakume osasuntsuen %90ean. Hala ere, endometriosiaren garapenerako prozesu gehiago gertatu behar dira. hau da, endometriosisia gertatzeko zelula endometriosikoak immunitate-sistemari aurre egin behar diote, epitelio peritonealari itsatsi eta inbaditu, neurobaskulazio lokala sortu eta hazkundearekin jarraitu behar dute. Horregatik, hileroko atzerakoiaren fenomenoak pairatzen duten emakumeen artean (%90) eta, ondoren, endometriosisia garatzen duten emakumeen arteko aldea (%10) nabarmena da (2).

#### **1.4. MINA ENDOMETRIOSIAN**

Mina esperientzia sensorial eta emozional desatsegina da, ehunen kalte erreal edo potentzialarekin lotua dagoena (16). Aurretik aipatu den bezala min endometriosisian ematen den sintoma aipagarrienetarikoa da, eta, emakume endometriosikoek pairatu dezaketen min sintomak anitzak izan daitezke, besteak beste, min pelbiko ez ziklikoa, dismenorrea, dispareunia eta diskezia (17). Endometriosiarekin erlazionatutako mina gaixotasuna bezain

konplexua izan daiteke eta ikusi da askotan ez dagoela erlazio proportzionalik ehunean gertatzen den lesioaren hedapenaren eta minaren intentsitatearen artean (18).

Mina hiru motatakoa izan daiteke: nozizeptiboa (ehun nerbioa ez den ehunaren lesioak eragindako mina), neuropatikoa (nerbio sistema somatosentsorialaren lesioak edo gaixotasunak eragindako mina) edo nozioplastikoa (sistema nozizeptiboaren aldaketek eragiten duten mina) (19). Endometriosisian hiru min motak batera gertatzen direla pentsatzen da, izan ere, pertsona bakoitzean hirutatik bat dominantea izaten da (19,20).

Endometriosisian ematen den mina mekanismo periferikoarengatik eta mekanismo zentralarengatik ematen da. Endometriosiari lotutako minaren mekanismo periferikoak ugariak dira eta lesio endometriotikoen, immunitate-sistemaren eta nerbio periferikoaren zuntzen arteko elkarrekintzagatik gertatzen da (21). Endometriosisia duten emakumeen likido peritoneoaren aldaketek nozizeptore periferikoen aktibazio edo sensibilizazioa eragin dute (22). Emakume hauen likido peritonealean alogeno ugari identifikatu dira (mina sortzen duten agenteak), eta horiek barne-korrante kitzikagarriak eragin edo ioi-kanalen funtzioa alda dezakete zeluletan (23). Gainera, immunitate zelulek zitokinak, hazkunde-faktoreak eta kimiozinak jariatzen dituzte, eta kantitate handian agertzen dira likido peritoneoan. Faktore hauek ere nerbio periferikoak sensibilizatzea eragiten dute, zelulen hartzaile espezifikoek bidez edo feedback konplexuak eragiten; honen ondorioz, hanturazko erantzuna eta minaren sorkuntza anplifikatzen da (24).

Mina eremu anatomiko zehatz batean hauteman ohi den arren, minaren esperientzia kontzientea garunetik sortzen da nerbio-sistema zentralaren barruko jardura koordinatuaren ondorioz (25). Minak berak ere nerbio-sistema zentralaren egitura eta funtzioa aldatzen ditu, eta sarritan sensibilizazio zentralera eramaten du; honek eragiten du sentikorrago bihurtzea estimulu periferikoekiko (26). Sensibilizazio zentrala mekanismo garrantzitsua da endometriosiaren minean. Sensibilizazio zentrala banandu egin daiteke estimulu

periferikoekiko neurona-mekanismoen bidez, eta sentsibilizazio zentralaren garapenak mina sortzea ekar dezake lesio kaltegarri periferikorik gabe (27). Hau izan daiteke arrazoi bat azaltzeko zergatik minak iraun dezake identifikatutako lesio periferiko guztiak tratatu arren (28).

### **1.5. SAILKAPENA**

Endometriosian sailkapen desberdinak erabiltzen dira, non histologia, lokalizazioa eta larritasuna kontuan hartzen diren. Azaleko endometriosisirako rASRM (revised American Society for Reproductive Medicine) sailkapena erabiltzen da eta puntuazio lesioaren tamainaren eta sakontasunaren arabera izango da, aldiz, puntuak ere gehitzen dira obulutegiko edo Falopioren tronpetako adhesioengatik eta cul-de-sac-eko obliterazioagatik. Sailkapena puntuen arabera egiten da: 1.fasea: (endometriosi minimoa: 1-5 puntu artean), 2.fasea (endometriosi arina: 6-15 puntu artean), 3.fasea (endometriosi moderatua: 16-40 puntu artean) eta 4.fasea (endometriosi larria > 40 puntu). rASRM sailkapena klinikan eta ikerketa zientifikoetan gehien erabiltzen den klasifikazio sistema da. Ostera, antzutasuna neurtzeko Endometriosi Fertility Index-a (EFI) erabiltzen da. Bestalde, endometriosiaren sakontasuna sailkatzeko Enzian sailkapena erabiltzen da rARSM-rekin batera gehigarri moduan erabiltzeko diseinatuta dagoena. Azkenik, tamaina neurtzeko MARIE sailkapena erabiltzen da, erresonantzia magnetiko bitartez burutzen dena (4).

### **1.6. DIAGNOSTIKOA**

Endometriosiaren diagnostikoan oso garrantzitsua da hedapena eta sakontasuna zehaztea, ondoren, tratamendu egokia burutu ahal izateko. Miaketa fisikoaren bitartez kanpo organoen egoera baloratu daiteke (bulban, perineoan, zilborrean, etb.). Miaketa fisikoa traktu abdominobaginala edo rektobaginalaren bitartez burutzen da, non tamaina desberdineko, trinkotasun gogorreko eta sendoki itsatsitako noduluak aurkitu daitezke uteroaren inguruko ehunetan, Douglasen poltsan edo trenkada rektobaginalan (2). Endometriosiaren susmoa

egotekotan, miaketa fisikoaz gain zenbait proba diagnostiko burutzen dira. Lehenengo, CA 125 glukoproteina erabili daiteke endometriaren diagnostikorako. Izan ere, mugak ditu endometriosi aurreratuen kasuan. Ekografia transbagnala diagnostikorik erabiliena da, dena den, obulutegiko endometriarako bakarrik erabiltzen da eta erabilpen mugatua dauka. Proba honen ostean ekografia burutzen da, ekografian endometriomak edo nodulu pelbikoak ikusten badira endometriosia dagoelaren seinale izango da. Aldiz, ekografian emaitza negatiboa edo zalantzazkoa izatekotan, erresonantzia magnetikoa burutzen da. Azkenik, laparoskopioa metodo klabea da endometriaren diagnostikorako, izan ere, endometriaren diagnostikorako %100 eraginkortasuna duena delako; hala ere, lehenengo aipatutako frogak burutzen dira laparoskopioa edo laparotomia prozedura inbasiboa delako. Laparoskopioa prozedura kirurgikoa da eta, honen bitartez, zirujaua ikusi edo baloratu eta tratatu dezake aldi berean (7).

## **1.7. TRATAMENDUA**

Endometriosiak ez dauka tratamendu sendagilerik, beraz, tratamendua sintomen eta bizi kalitatearen hobekuntzan oinarritzen da (2). Tratamendu sintomatologikoa planteatu baino lehen, minaren arazoa aztertu behar da azterketa kliniko sakon baten bidez. Garrantzitsua da zehaztea mina ehunaren lesioarekin lotuta egon daitekeen edo beste faktore batzuegatik sortu den (29). Gaixotasun honen tratamendu sintomatologikoa multidiziplinarra da eta haien artean konbinatu daitezke (2).

### **1.7.1. Tratamendu medikoa**

Tratamendu medikuaren helburuak lesioak sendatzea, minaren kontrola eta errezidiben prebentzioa da, eta tratamendu farmakologikoan eta kirurgikoan oinarritzen da. Minaren kontrolerako aukera bat antiinflamatorio ez esteroideoak (AIEE) erabiltzea da, hauek dismenorrearekiko efektiboak dira, baina, endometriaren beste sintomen aurrean, aldiz, ez. Minaren kontrolerako beste aukera tratamendu hormonalak da, estrogeno menpekoa dena eta pazienteen ongizatean oinarritzen dena. Inplante hormonalak erabiltzen dira, atrofia murriztu

edo ziklo hormonalak eteten dituztenak (2). Aurreko guztia eraginkorra ez bada, tratamendu kirurgikoa erabiltzen da. Hala ere, tratamendu hau hasieratik erabiltzeko aukera dago, baina teknika inbasiboa denez, beste terapiak erabiltzen dira aurretik. Laparatomia eta laparaskopia erabili arren, eta biak eraginkorrak izan, laparaskopia ez da hain mingarria eta egonaldi ospitalario murriztuagoa eta errekupeazio azkarragoa dauka. Antzutasunerako zenbait tratamendu ere erabiltzen dira. Laparaskopia berak efektu positiboak izan ditzake antzutasunean. Izan ere, endometriosisian ematen den antzutasunaren tratamenduaren aukeraketa emakumearen adina, obuluen erreserba eta obozitoen kalitatearen arabera izango da (30).

### **1.7.2. Tratamendu nutrizionala**

Tratamendu nutrizionalari dagokionez, ikerketek adierazi dute nutrizioa faktore garrantzitsua dela endometriosisian. Hain zuzen ere, zenbait ikerketek ondorioztatu dute elikadura osasuntsua eta orekatu batek endometriosisian ematen den min pelbikoa (bigarren mailako dismenorrea, dispareunia, diskezia eta min pelbikoa) murriztu dezakeela. Hori dela eta, alkohola, gantzan aberatsak diren elikagaiak eta gantz azidoak, trans-gantzak eta haragi gorria saihestea gomendatzen da (31). Ikerketa desberdinek kafeinaren kontsumoak endometriosisia pairatzeko arriskuarekin erlazionatu dute; hala ere, ez dago ebidentzia zientifiko nahikorik (32). Endometriosi arriskua murrizteko fruta, barazkiak, esnekiak eta kaltzioan eta D bitaminan aberatsak diren elikagaien kontsumoa gomendatzen da (31). Bestalde, zenbait ikertzaileek ondorioztatu dute glutena zitokin proinflamatorioen ekoizpena areagotu ditzakeela eta, ondorioz, endometriosisian ematen den min pelbikoa okertu. Horregatik, gluten gabeko dietek lagungarriak izan daitezke tratamendu farmakologikoarekin batera konbinatuz; ala ere, ez dago ebidentzia zientifiko nahikorik (33,34).

### 1.7.3. Tratamendu psikologikoa

Endometriosiaren tratamendu ohikoak tratamendu kirurgikoa eta farmakologikoa dira, halaber, gaixotasun kronikoa denez, endometriosisia estres iturri handia izan daiteke (29). Ikerketek diote larritasun psikologikoaren arrazoia ez dela gaixotasuna bera, endometriosiari lotutako mina baizik, batez ere kronikoa denean. Aldi berean, min handia duten endometriosi pazienteez depresio-sintomak eta antsietate-nahasmenduak izateko arrisku handiagoa dute minik ez dutenekin konparatuz (35,36). Ondorioz, terapia psikologikoei aukera eman zaie endometriosiarekin erlazionatzen den minari eta minak eragin ditzakeen ondorioei aurre egiteko (37). 2019an egindako berrikuspen sistematiko batean, interbentzio psikologiko eta gogo-gorputz interbentzioen (*Ingeleraren jatorria: Psychological and Mind-body interventions*; PMB) eragina minean aztertu zen; psikoterapia, erlaxazioa eta mindfulnessa barneratzen zituzten ikerketak aztertu ziren. Berrikuspenean aztertu ziren ikerketen %89ak minaren murrizketa aurkeztu zuten. Ikerketa hauen helburu nagusia PMB-ak minan daukan eragin aztertzea izan zen, izan ere, minak osasun mentalean duen eragina dela eta beste faktore batzuk neurtu ziren; hala nola, antsietatea eta loaldia (38). Antsietatea eta depresioa aztertu zituzten ikerketek, bi faktore hauen murrizketa aurkeztu zuten. Fatiga eta estresa aztertu zituzten ikerketekin berdina gertatu zen. Gainera, ikerketa batean loaren kalitatea neurtu zen eta yogak loaren kalitatea handitzen zuela ondorioztatu zen (39). Hala ere, ezin da PMB-aren baliogarritasuna baieztatu hainbat ikerketen mugak direla eta.

### 1.7.4. Tratamendu fisioterapeutakoa

Min etengabeak aldaketa nozioplastikoak eragiten ditu sentsibilizazio zentrala sortuz, eta horrek minaren atalasea gutxitzea eragiten dezake. Ikerketetan ikusi da minak postura ez egokiak eragin ditzakeela eta, ondorioz, sistema muskulueskeletiko guztian eragin negatiboa izan. Izan ere, aldaketa esanguratsuak eman daitezke, zehazki, pazienteen zoru pelbikoaren tonuan, indarrean eta muskuluen kontrakzioen eta erlaxazioen koordinazioan (40). Gaixotasuna

aurrera egin ahala, minaren sentsibilizazioa handitzen bada, tentsio muskular handiagoa eragin dezake, eta zoru pelbikoko muskulu hipertonikoek dituzten aldaketek min gehiago piztuko dute (29).

Egoera honen aurrean fisioterapia pelbiperioneologikoaren helburuak mina arintzea, inplante endometrialek edo ebakuntzek eragindako adherentziak askatzea, gaixotasunaren progresioa murriztea eta endometriosisia pairatzen duten emakumeen bizi kalitatea hobetzea dira. Fisioterapia teknika erabilienak masoterapia (perineala, abdominala, orbainetako), osteopatia estrukturala zein biszerala, indukzio miofasziala, berreziketa posturala, arnas teknika fisioterapikoak, erlaxazio teknikak eta tratamendu kontserbadorea zein inbasiboak dira. Bestalde, oso garrantzitsua da ariketa fisikoa egitea, endometriosiaren babeslea dela ikusi omen delako (41).

Fisioterapiak minean endometriosisian duen ahalmenari buruz oraindik ez dira ikerketa asko burutu. Hala ere, min pelbikoa kronikoari buruz hainbat ikerketa eta berrikuspen sistematiko argitaratu dira azkenengo urteetan. Min pelbikoak 3-6 hilabetetik aurrera irauten badu min pelbiko kronikoa bihurtzen da. Min pelbiko kronikoa min zentralizatu mota da non minaren atalasea jaitsi egiten den, eta, ondorioz min kronikoa garatu (42). Min pelbikoa endometriosisian ematen den sintoma nagusienetarikoa da, izan ere, kasu askotan kronifikatu egiten da, besteak beste, diagnostiko denbora luzeagatik edo tratamendu aukera ez egoki batengatik. Hortaz, min pelbiko kronikoari buruzko ikerketetan ateratako ondorioak endometriosiarekin erlazio handia izan dezakete, izan ere, ikerketa batzuen lagina endometriosisia duten parte-hartzaileak barneratzen dituzte. Metodo fisioterapeutikoak asko erabiltzen dira min pelbiko kronikoa duten pazienteen artean, hala nola, indukzio miofasziala, biofeedback, ariketa aerobikoa, terapia somatokognitiboa eta Thiele masajea, eta badirudi lagungarriak izan daitezkeela (43). Izan ere, tratamendu fisioterapeutikoek min pelbiko kronikoa duten pazienteek pairatu ditzaketen zoru pelbikoko disfuntzio muskulu-eskeletikoak hobetu dezakete (44).



Klinikan fisioterapia teknikak erabiltzen dira gaixotasun honek sortzen duen mina arintzeko. Halaber, fisioterapiaren erabilpena kasu askotan enpirikoa dela ikusita, fisioterapia tratamenduei buruzko ebidentzia zientifikoa aztertu nahi da. Ondorioz, berrikuspen sistematiko honen bidez, ebidentzia zientifikoaren arabera zein fisioterapia-tratamendu erabiltzen diren endometriosisia duten emakumeen minaren tratamendurako, eta hauek lortutako emaitzak aztertu nahi da.

## **2. METODOAK**

Berrikuspen sistematiko hau zuzendua izan zen “*Preferred Reporting Items for Systematic Reviews and Meta-Analyses (PRISMA)*” jarraibidea kontuan hartuz (45). Era berean, PRISMA zerrenda (cheklist) **1. Eranskinean** aurkitu daiteke.

### **2.1. BILAKETAREN ESTRATEGIA**

Bilaketa sistematikoa 2022ko irailetik urria arte egin zen hurrengo sei datu-base elektronikoetan: Pubmed, Cochrane, MEDLINE, PEDro, Scopus eta SPORTDiscuss. Erabilitako terminoak erabiliak izan ziren: "Endometriosis", "Physical Therapy Modalities", "Physical Therapy Specialty" eta "Physiotherapy"; "OR" eta "AND" operadore Bolearrekin konbinatu egin ziren. Datu-base bakoitzean egindako bilaketa **2. Eranskinean** zehazten da.

### **2.2. HAUTAGARRITASUN IRIZPIDEA**

Bilaketaren hautagarritasun irizpideak PICO (*ingeleratik P: Population; I: Intervention; C: Comparison; O: Outcome*) estrategia jarraitzen ezarri ziren (**1.Taula**):

1.Taula. PICO estrategiaren deskribapena.

Akronimoa	Esanahia	Deskribapena
P	Populazio edo arazoa	Endometriosisa diagnostikatutako emakumeak
I	Interbentzioa	Fisioterapia tratamendu teknikak edo/eta metodoak
C	Konparazioa	Plazeboa edo kontrola
O	Aldagaia	Mina

Ikerketak baztertuak izan ziren: (a) ikerketak beste gaixotasunak pairatzen zituzten emakumeak barneratzen bazituen; (b) ikerketa osoaren testua eskuragarri ez bazegoen (c) ausazko entsegu kliniko ez izatekotan; eta, (d) ariketa fisikoko interbentziorik burutzekotan.

### 2.3. IKERKETEN AUKERAKETA

Datu-base desberdinetan hautatutako artikuluen izenburuak eta laburpenak aztertu ziren. Artikulu bakoitza modu independentean aztertu ondoren, behin betiko hautatuak izateko barneratze eta baztertze irizpideak betetzen zituzten egiaztatu zen. Hautatutako artikuluen erreferentzia-zerrendak, baita haiek aipatzen dituzten azterlanak ere, berrikuspen honetarako onar zitezkeen artikuluen berri posibleak egiaztatu ziren.

### 2.4. DATUEN BILKETA

Lagina, parte-hartzaileen adina eta desbideratze estandarra, barneratze eta baztertze irizpideak, interbentzio taldeak (IT) eta kontrol taldeak (KT) burututako interbentzioa, mina baloratzeko erabili ziren tresnak, emaitzak eta adherentzia eta amaiera tasa azterlanetatik atera ziren.

### 2.5. KALITATEAREN EBALUAZIOA

Ausazko entsegu kliniko bakoitzaren (*Randomized Controlled Trial ingelesatik*, RCT) kalitate metodologikoa Fisioterapiako Ebidentzien Datu-basetik (*Physiotherapy Evidence Database*


*ingelesatik*, PEDro) hartu zen. Entsegu bat ez bazen PEDro-n aurkitzen, autoreak haren kalitatea ebaluatu zuen. Ikerketen kalitatea sailkatzeko proposatutako ebaketa-puntuak hauek izan ziren: bikaina (9–10), ona (6–8), egokia (4–5) eta eskasa (<3) (46).

### **3. EMAITZAK**

#### **3.1. IKERKETEN AUKERAKETA**

Pubmed-en 86 artikulua aurkitu ziren eta hautagarritasun irizpideak ezarri ondoren, 4 ikerketa izan ziren hautagarri. Cochrane-n hiru bilaketa egin ziren, guztira 28 artikulua aurkitu ziren eta hautagarritasun irizpideak ezarri ondoren, ez ziren artikulurik hautatu. Medline-n egindako bilaketan 45 artikulua aurkitu ziren eta hautagarritasun irizpideak ezarri ondoren, ez ziren artikulurik hautatu. Scopus-en bi bilaketa egin ziren eta ez ziren artikulurik lortu hautagarritasun irizpideak ezarri ondoren. PEDro-n 22 artikulua aurkitu ziren eta hautagarritasun irizpideak ezarri ondoren, 3 artikulua eskuratu ziren. Azkenik, Sportdiscus-en bi bilaketak egin ziren eta ez ziren artikulurik aurkitu. Ikerketa bakoitza aztertu ondoren, egokia izan litekeen ikerketa bakoitzaren testu osoaren kopia bat lortu zen. Beraz, hasieran lortutako 242 artikuluetatik, 20 eskuratu ziren testu osoa irakurtzeko eta, azkenean, 7 ausazko entsegu kliniko aukeratu ziren (**2. Irudia**). Azkenik, hautatutako ikerketen erreferentziak irakurriz ez ziren bestelako ikerketarik aurkitu. Ikerketen bilaketa zehatza eta datu-base bakoitzeko eskuratutako artikulua kopurua **2. Eranskinean** aurki daiteke.

PRISMA 2020 fluxu-diagrama, datu-baseen eta erregistroen bilaketak soilik jasotzen dituzten berrikuspen sistematiko berrietarako.



\* Kontuan izan, posible bada, erregistratutako datu-base edo erregistro bakoitzetik identifikatutako erregistro kopuruaren berri ematea (datu-base/erregistro guztien guztizko kopuruaren berri eman beharrean)

\*\*Automatizazio-tresnak erabili badira, adierazi zenbat erregistro baztertu dituen gizaki batek eta zenbat baztertu dituen automatizazio-tresnek.

**2. Irudia.** Bilaketaren eta artikuluen aukeraketaren fluxu diagrama.

### 3.2. KALITATE METODOLOGIKOAREN BALORAZIOA

Ausazko entsegu kliniko batek kalitate metodologiko eskasa (53), bik kalitate metodologiko egokia (48,49) eta lauk kalitate metodologiko ona lortu zuten (47,50-52) (**2. Taula**).

**2.Taula.** PEDro eskala.

Puntuak	1	2	3	4	5	6	7	8	9	10	11	Totala
Del Forno et al, 2021 (47)	B	B	B	B	E	E	B	B	B	B	B	8/10
Mira et al, 2020 (48)	B	B	E	E	E	E	E	B	B	B	B	5/10
Mira et al, 2015 (49)	B	B	E	E	E	E	E	B	B	B	B	5/10
Napadow et al, 2012 (50)	B	B	B	B	B	E	E	B	B	B	B	8/10
Wayne et al, 2008 (51)	B	B	E	B	B	E	B	E	E	B	B	6/10
Armour et al, 2021 (52)	B	B	B	B	E	E	E	B	B	B	B	7/10
Rubi-Klein et al, 2010 (53)	E	B	E	B	E	E	E	E	E	E	B	3/10

Laburdurak: B: bai; E: ez.

### 3.3. DISEINUA ETA LAGINA

Berrikuspen sistematiko honetan barneratutako 7 ikerketen ezaugarrien laburpena **3. Taula** aurki daitezke. Ikerketa guztietatik lortutako lagin osoa 320 parte-hartzailekoa izan zen, lagin txikiena 15 parte-hartzailekoa izan zen (50) eta lagin handienak, berriz, 101 parte-hartzailekoak (48,53). Ikerketa guztiek parte-hartzaileen sexua identifikatu zuten, guztiak emakumeak izanik, alegia. Parte-hartzaileen ezaugarriak desberdinak izan ziren ikerketen laginen artean, hala ere, parte-hartzaile guztiak endometriosiarekin edo endometriosi sakonarekin diagnostikatuak izan ziren (47-53). Lagin osoaren batez bestekoaren eta desbideratze estandarraren adina  $31.78 \pm 5.98$  urteko izan zen, sei ikerketek emandako informazioarekin kalkulatuta (47-52).

Hautatutako ikerketen artean guztiek aipatu zituzten barneratze eta baztertze irizpideak. Orokorrean, gehien errepikatutako barneratze irizpideak endometriosisia edo endometriosi

sakona diagnostikatua izatea (47-53), adin tartea 13-64 artean egotea (47,49-52), tratamendu hormonal hartzea (48,49,51,52) eta min pelbikoko edo dispareunia sintomak izatea (29-31, 34) izan ziren. Azterlan batzuetan partaideak onartzeko uteroko osoa eta gutxienez obulutegi bat (51), hileroko erregularra (52) edo gutxieneko ingeles maila izan behar zuten (50).

Baztertze irizpideei dagokionez, errepikatuenak haurdun egotea (47,48,50,51), VAS (*Ingeleraren jatorria: Visual Analogue Scale*; Eskala analogiko bisuala) eskalan gutxieneko min intentsitatea pairatzea (50-53) eta urritasun kognitiboa, fisikoa edo psikiatrikoa pairatzea (48-52) izan ziren. Horretaz gain, ikerketa batzuk ez zituzten parte-hartzaileak onartu taupada-markagailua edo bihotzeko gaixotasunik bazuten (48-50) edo minbizia edo tumore gaiztorik bazituzten (48-50). Beste batzuk, parte-hartzaileak baztertu zituzten azkenengo hilabetetan endometriosisirako edo min pelbikorako ebakuntza burutu bazuten (47,50) edo endometriosisirako tratamendu espezifikoak burutu bazituzten (50,51,53). Azterlan batzuek partaideak baztertu zituzten abusu sexualen historia izatekotan (47), egoera ez-anbulatorioa izatekotan (50) edo ezkertia izatekotan (52).

### **3.4. INTERBENTZIOEN EZAUGARRIAK**

Berrikuspen sistematikoa barneratutako ikerketek interbentzio taldean tratamendu fisioterapeutiko desberdinak egin zituzten. Ikerketa batean zoru pelbikoko fisioterapia burutu zen, saioetan Thiele masajea burutu zitzairen non zoru pelbikoko muskulaturan presio digitala eta luzaketak burutu ziren zoru pelbikoko muskuluen tonua normalizatzeko (47). Beste bi ikerketetan, TENS-aren aplikazioan oinarritu ziren; interbentzio batean TENS-aren aplikazio kutaneoak izan zen (48) eta, bestean, akupuntura moduko TENS-a erabili zen (49). Interbentzio batean nerbio bagoaren elektroestimulazioa burutu zen (50) eta, azkenik, hiru ikerketetan akupunturaren aplikazioan oinarritu ziren; bi interbentzioetan akupuntura burutu zen (51,52) eta, beste batean, akupuntura Verum teknika erabiltzen (53).

Kontrol taldeari dagokionez, ikerketa batean parte-hartzaile bakoitzak bere buruari TENS-a aplikatzea izan zen (49) eta, beste batean, plazebo akupuntura burutzen zitzairen (51). Bestalde, beste hiru ikerketetan kontrol taldeak ez zuen interbentziorik gauzatu (47,48,52), hala ere, interbentzio batean ikerketa bukatu ondoren kontrol taldeari proposatutako tratamendua egiteko aukera eman zitzaion (48). Azterlan batean interbentzio taldea eta kontrol taldea parte-hartzaile berdinek osatu zuten, izan ere, interbentzio saioa burutu zen eta, aste bat igaro ostean, kontrol saioa. Hau da, lehenengo arnasketa bidez kontrolatutako nerbio bagoaren zuntz aferenteen elektroestimulazio aurikularren saio bat burutu zuten, eta aste bat igaro ostean, elektroestimulazioa aurikular ez-bagalaren saio bat (50). Beste azterlan batean, interbentzio taldea eta kontrol taldea gurutzatu ziren eta bi taldeek tratamendu berdinak jaso zuten. Ikerketaren lehenengo unitatean interbentzio taldeak Verum motako akupuntura jaso zuten, eta, kontrol taldeak plazebo akupuntura. Bigarren unitatean, taldeak gurutzatu egin ziren (53).

Interbentzio denborarik ohikoena 8 aste izan ziren (48,49,51,52), interbentziorik luzeena 11 astekoa izanik (47) eta motzena aste 1ekoa (50). Ikerketa batzuetan parte-hartzaileen jarraipena burutu zen tratamendu ostean emaitzak denboran zehar mantentzen edo ez baziren ikusteko (51-53), denbora ohikoena tratamendua bukatu eta 6 hilabete arte jarraipena egitea izan zen (51-53).

Ikerketa guztiek saioen maiztasunari buruzko informazioa eman zuten. Ohikoena 2 saio/astero (51,52) izan zen; interbentzio maizena 2 saio/egunero izan zen (48) eta maiztasun txikiena 1 saio/astero (49,50). Iraupenari dagokionez, lau azterlanek bakarrik aipatu zuten saioen iraupena (47-49,52); saiorik luzeenak 30 minutukoa (47,49,52) eta laburrena 20 minutukoa izanda (48).

### **3.5. EMAITZA NAGUSIAK**

Azterlanek mina neurtzeko tresna desberdinak erabili zituzten, besteak beste, Numerical Rating Scale (NRS) (47,50,52), Visual Analogue Scale (VAS) (48,49,53), Deep Dispareunia

Scale (DDS) (48,49), Endometriosis Symptom Severity Scale (51) eta Pain Disability Index (53). Azterlan batzuetan mina orokorrean neurtu zen (51-53) eta, beste batzuetan, min motak neurtu ziren, hala nola, min pelbiko kronikoa (47-49), dismenorrea (47-49,52), dispareunia (47-49), diskezia (47-49), disuria (47-49) eta obulazio mina (47). Interbentzio taldean aldaketa estatistikoki esanguratsu positiboak ikusi ziren minean orokorrean (52,53), min pelbiko kronikoan (48,49), dispareunia sakonean (48,49), diskezian (48,49), disurian (48) eta dismenorrean (52) interbentzio aurreko eta ondorengo emaitzak konparatuz (48,49,52,53). Gainera, lau azterlanetan (47,48,50,51), estatistikoki esanguratsu positiboak izan ziren aldaketak ikusi ziren amaitzerakoan interbentzio eta kontrol taldearen artean interbentzio ostean azaleko dispareunian (47), min pelbiko kronikoan (47,48), min sakonean (50) eta minean orokorrean tratamendua bukatu eta 4. astera (51). Hala ere, hiru azterlanetan hobekuntza estatistiko esanguratsuak ikusi ziren kontrol taldean dispareunia sakonean (48,49), diskezian (48), mina egunerokotasunean (52) eta dismenorrean (52).

### **3.6. ADHERENTZIA ETA AMAIERA TASA**

Bi ikerketek ez zuten kontrol taldearen eta interbentzio taldearen adherentziaren datu espezifikorik eman (50,53). Beste lauretan, kontrol taldearen amaiera tasa %43.3-tik %90-ra izan zen (47,48,51,52). Bestalde, interbentzio taldeko amaiera tasa %74.5 eta %100 artean egon zen (47,48,51,52). Sei ikerketetan, amaiera tasa %61.7 eta % 87.5 arteko izan zen (47,48,50-53). Ikerketa batean parte-hartzaileen %100 esku-hartzea bukatu zuten, hala ere, lagina-tamaina txikia izan zen (n= 22) (49). Ikerketa batek parte-hartzaileek ikerketa uztearen arrazoiak berri eman zuten; parte-hartzaile batek ikerketan parte-hartzeari utzi behar izan zion bat-bateko ebakuntza burutu behar izan ziotelako eta, beste batek, interbentzio utzi behar izan zuten haurdun gelditu zelako (52). Gainerako azterlanek ez zuten parte-hartzaileek ikerketa uztearen arrazoiak berri eman.



## 3. Taula. Berrikuspen sistematikoan barneratutako ikerketen ezaugarriak.

Erreferentzia	Lagina eta Adina $\pm$ DE	Barneratze eta baztertze irizpideak	Interbentzioak	Mina baloratzeko tresna	Eraitzak (Estatistikoki esanguratsuak, $p < 0.05$ )	Adherentzia eta amaiera tasa
Del Forno et al. 2021 (47)	IT: n= 17 KT: n= 13  IT: 32.8 $\pm$ 6.7 KT: 32.5 $\pm$ 7.6	<b>Inklusio irizpideak:</b> Adina: 18-45 urte Endometriosi sakonaren diagnostiko kliniko eta ultrasoinu bideko diagnostikoa izatea International Deep Endometriosis Analysis Group irizpideen arabera Erlazionatutako azaleko dispareunia izatea  <b>Baztertze irizpideak:</b> Aurreko edo oraingo gaixotasun genitala Organo pelbikoen prolapsoa DIE-rako aurreko ebakuntzarik Aurreko edo oraingo haurdunaldia Pelbisaren edo zoru pelbikoaren ezohikotasun kongenittoa edo hartutako Abusu sexualen historia Infekzio genitourinarioa izatea Min pelbiko kronikorako beste arrazoirik egotea	<b>Iraupena:</b> 11 aste  <b>IT</b> <b>Maiztasuna:</b> 1 saio/2 astero <b>Bolumena:</b> 30 minutu <b>Saio kopurua:</b> 5 <b>Deskribatutako ekintza:</b> Zoru pelbikoko fisioterapia (Thiele masajea) <b>Jarraipena:</b> Ez  <b>KT</b> <b>Deskribatutako ekintza:</b> Ez zen interbentziorik burutu	NRS	<b>IT vs. KT post:</b> ↓ Azaleko dispareunia ↓ Min pelbiko kronikoa	<b>Orokorra:</b> %88.2  <b>IT:</b> %100(n= 17/17)  <b>KT:</b> %76.5 (n=13/17)
Mira et al, 2020 (48)	IT: n= 53 KT: n= 47  IT: 35.06 $\pm$ 6.7 KT: 37.21 $\pm$ 6.51	<b>Inklusio irizpideak:</b> Menacme* DIE diagnostikatua izatea ultrasoinu intrabaginal espezializatu baten bidez Tratamendu hormonal jarraitua erabiltzea Min pelbikoaren sintomak aurkeztea	<b>Iraupena:</b> 8 aste  <b>IT</b> <b>Maiztasuna:</b> 2 saio/egunero <b>Bolumena:</b> 40 minutu (20 minutu saio bakoitza)	Min pelbiko kronikoa: VAS Dispareunia sakona: DDS Diskezia: VAS Disuria: VAS	<b>IT (pre vs. post):</b> <b>Min kronikoa:</b> ↓ Min pelbiko kronikoa ↓ Dispareunia sakona ↓ Diskezia	<b>Orokorra:</b> %82  <b>IT:</b> %74(n=39/54)  <b>KT:</b> %92(n=44/48)

\* Menacme: emakumezkoen bizitzako aldian, hilekoaren aktibitatea bete-betean dagoenean

Laburdurak: DE: desbideratze estandarra; IT: Interbentzio taldea; KT: Kontrol taldea; DIE (*Ingeleraren jatorria: Deep infiltrating endometriosis*; Endometriosi sakona; NRS: Numerical Rating Scale; VAS: Visual Analogue Scale; DDS: Deep Dispareunia Scale

3. Taula. Berrikuspren sistematikoan barneratutako ikerketen ezaugarriak (Jarraipena).

Erreferentzia	Lagina eta Adina $\pm$ DE	Barneratze eta baztertze irizpideak	Interbentzioak	Mina baloratzeko tresna	Emaitzak (Estatistikoki esanguratsuak, $p < 0.05$ )	Adherentzia eta amaiera tasa
		<b>Baztertze irizpideak:</b> Haurdun egotea Taupada-markagailu izatea Azaleko sentsibilitatea murriztua izatea Gelari edo elektrodoari alergia izatea Epilepsia pairatzea Arritmia kardiakoa Osteosintesia izatea aplikatutako lekuan Minbizia izatea Pelbiseko hanturazko gaixotasun akutua pairatzea Urritasun kognitiboa izatea Jarraibideak edo instrumentuen erabilera ulertzeko zailtasunak izatea	<b>Saio kopurua:</b> 56 <b>Deskribatutako ekintza:</b> Nork bere buruari aplikatutako TENS-a + tratamendu hormonala <b>Aparatuaren parametroak:</b> <u>Frekuentzia:</u> 85Hz <u>Pultsuaren iraupena:</u> 75 $\mu$ s <u>Intentsitatea:</u> 10, 20 edo 30mA  <b>Aplikazio tokia:</b> gune parasakralean (S3-S4 altueran) <b>Jarraipena:</b> Ez  KT <b>Deskribatutako ekintza:</b> Tratamendu hormonal hartzeari  <b>Metodo gehigarria:</b> jarraipen denboraldia bukatu ondoren elektroterapia tratamenduan parte hartzera gonbidatuak izan ziren	Mina zikintzean (dismenorrea): VAS	↑ Ebakuazio frekuentzia ↓ Disuria <b>KT (pre vs. post):</b> <b>Min kronikoa:</b> ↓ Dispareunia sakona ↓ Diskezia  <b>IT vs. KT post:</b> ↓ Min pelbiko kronikoa	
Mira et al, 2015 (49)	IT: n= 11 KT: n= 11  IT: 41.0 $\pm$ 5.4 KT: 30.9 $\pm$ 4.5	<b>Inklusio irizpideak:</b> Menacme* 18-50 urte izatea Endometriosi sakona diagnostikatua izatea	<b>Iraupena:</b> 8 aste  <b>IT</b> <b>Maiztasuna:</b> 1 saio/astero <b>Bolumena:</b> 30 minutu <b>Saio kopurua:</b> 8	Min pelbiko kronikoa: VAS Dispareunia sakona: DDS Diskezia: VAS Disuria: VAS	<b>IT (pre vs. post):</b> ↓ Min pelbiko kronikoa ↓ Dispareunia sakona ↓ Diskezia	<b>Orokorra:</b> %100

\* Menacme: emakumezkoen bizitzako aldian, hilekoaren aktibitatea bete-betean dagoenean

Laburdurak: DE: desbideratze estandarra; IT: Interbentzio taldea; KT: Kontrol taldea; DIE (*Ingeleraren jatorria: Deep infiltrating endometriosis*; Endometriosi sakona); VIF (*Ingeleraren jatorria: variation in intensity and frequency of 1 ms.*; 1ms-ko aldaketa intentsitatean eta frekuentzian; NRS: Numerical Rating Scale; VAS: Visual Analogue Scale; DDS: Deep Dispareunia Scale

3. Taula. Berrikuspun sistematikoan barneratutako ikerketen ezaugarriak (Jarraipena).

Erreferentzia	Lagina eta Adina $\pm$ DE	Barneratze eta baztertze irizpideak	Interbentzioak	Mina baloratzeko tresna	Emitzak (Estatistikoki esanguratsuak, $p < 0.05$ )	Adherentzia eta amaiera tasa
		<p>Endometriosi sakona diagnostikatua izatea cul-de-sac eta/edo heste-bihurguneak, hesteak prestatu ondoren ultrasonografiarekin burututako irudi-probak eginez</p> <p>Tratamendu hormonal jarraitua erabiltzea progestinarekin bakarrik edo ahozko antisorgailuekin konbinatuz</p> <p>Min pelbikoaren edo dispareunia sakonaren sintomak aurkeztea, beste minekin erlazionatuta edo ez (dismenorrea, diskezia eta disuria)</p> <p><b>Baztertze irizpideak:</b>            Azaleko sentsibilitatea murriztua izatea            Taupada-markagailu izatea            Azaleko hipersentsibilitatea (gelari edo elektrodoari alergia izatea)            Epilepsia pairatzea            Bihotzeko gaixotasunak pairatzea (arritmia kardiakoa)            Osteosintesia izatea aplikatutako lekuan            Larruazalaren lodiera akatsak            Tumore gaiztorik izatea            Pelbiseko hanturazko gaixotasun akutua pairatzea            Urritasun kognitiboa izatea, instrumentuen erabileraren ulermena eragozten duena</p>	<p><b>Deskribatutako ekintza:</b>            Akupuntura moduko TENS-a + tratamendu hormonala</p> <p><b>Aparatuaren parametroak:</b>  <u>Frekuentzia:</u> 8Hz  <u>Pultsuaren iraupena:</u> 250<math>\mu</math>s eta VIF  <u>Intentsitatea:</u> Erregulagarria emakumearen arabera (“indartsua, baina eroso”)</p> <p><b>Aplikazio tokia:</b> gune sakroan (S3-S4 altueran)  <b>Jarraipena:</b> Ez</p> <p><b>KT</b>  <b>Iraupena:</b> 8 aste  <b>Maiztasuna:</b> 2 aldiz/egunero  <b>Bolumena:</b> 20 minutu  <b>Deskribatutako ekintza:</b> Nork bere buruari aplikatutako TENS-a + tratamendu hormonala</p> <p><b>Aparatuaren parametroak:</b>  <u>Frekuentzia:</u> 85Hz  <u>Pultsuaren iraupena:</u> 75<math>\mu</math>s  <u>Intentsitatea:</u> 10, 20 edo 30mA (“indartsua, baina eroso”) </p> <p><b>Aplikazio tokia:</b> gune parasakranean (S3-S4 altueran)  <b>Jarraipena:</b> Ez</p>	<p>Dismenorrea:            VAS</p>	<p><b>KT (pre vs. post):</b>            ↓ Min pelbiko kronikoa            ↓ Dispareunia sakona</p> <p><b>IT vs. KT post</b>            ↓ Min pelbiko kronikoa            ↓ Dispareunia sakona            ↓ Diskezia</p>	

Laburdurak: DE: desbideratze estandarra; IT: Interbentzio taldea; KT: Kontrol taldea

3. Taula. Berrikuspren sistematikoan barneratutako ikerketen ezaugarriak (Jarraipena).

Erreferentzia	Lagina eta Adina $\pm$ DE	Barneratze eta baztertze irizpideak	Interbentzioak	Mina baloratzeko tresna	Emitzak (Estatistikoki esanguratsuak, $p < 0.05$ )	Adherentzia eta amaiera tasa
